

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 28

*EBAZPENA, 2024ko abenduaren 13koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko otsailaren 8an egingo den ehizatzeko gaitasun-azterketaren tokia Gipuzkoako Lurralde Historikorako.*

2024ko azaroaren 25ean, EHAAn argitaratu zen Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2024ko azaroaren 14ko Ebazpena, ehizatzeko gaitasun-azterketen 2025erako deialdia egiten duena.

Aldatu egin da 2025eko otsailaren 8an egingo den azterketaren tokia Gipuzkoako Lurralde Historikorako.

Horiek horrela, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2025eko otsailaren 8an egingo den ehizatzeko gaitasun-azterketaren tokia aldatzea Gipuzkoako Lurralde Historikorako. Horrenbestez, taula honetan ageri dena izango da:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Tokia	UPV/EHU – Letren Fakultatea. Unibertsitateko ibilbidea 5, 01006 Vitoria-Gasteiz	Sarrikoko campusa. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Miguel Ángel Blanco eraikina, Agirre lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbao	Elbira Zipitria zentroa – UPV/EHU. Ondarreta pasealekua 13, 20018 Donostia, Gipuzkoa

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 13a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,  
JORGE GARBISU BUESA.